



HEZKUNTZA,
GARAPEN IRAUNKORRERAKO
HELBURUEN OINARRIA

LA EDUCACIÓN,
BASE PARA LOS OBJETIVOS
DE DESARROLLO SOSTENIBLE

Programa de Acción Mundial de la UNESCO
sobre la Educación para el Desarrollo Sostenible



Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Katedrak irailaren 5etik 7ra Bilboko Bizkaia Aretoan antolatutako *Hezkuntza, Garapen Iraunkorrerako Helburuen Oinarria (GIH)* jardunaldietan ateratako **ONDORIOAK**.

Jardunaldiak Garapen Iraunkorrerako Helburuetan ardaztu dira, hau da, Nazio Batuek *Gure mundua aldatu: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda* lelopean aurkeztutako egitasmoan, gure planeta, pertsonen bizitza, oparotasuna eta aliantzak hobetzea xede duten 17 helburuk osatua.

Gogoetarako gune eta aldaketarako hazi

Gogoeta egiteko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak hezkuntza formal, ez-formal eta informalaren esparruetara eramatearekin lotutako esperientziak trukatzeko aukera eman digute jardunaldiek. Jende askok parte hartu du topaketetan: unibertsitateko adituek eta unibertsitatetik kanpoko hezitzaileek, erakunde eta organismo publikoetako teknikariek, Ingurugela zerbitzuko kideek, garapenerako lankidetzaren aldeko GKEek, eta beste gizarte-talde batzuek. Bai jasangarritasunaren aldeko esperientziei buruz aurkeztutako komunikazioak (48) eta bai horma-irudiak (12), den-denak dira jasangarritasunerantz eraman gaitzakeen aldaketarako hazi ezin emankorragoak. Jardunaldietan mota askotako proiektuak aurkeztu ziren: metodologia pedagogikoak berritzeko proposamenak, eskolak modu jasangarrian kudeatzekoak, garapenerako lankidetzaren aldekoak, baratze ekologikoak sortzekoak...

Garapen Iraunkorrerako Helburuak inspirazio-iturri dira, eta aliantzak errazten dituzte

Jardunaldietan ateratako ondorioen artean, aho batez onartu zen Garapen Iraunkorrerako Helburuek lan-esparru bat osatzeko aukera ematen zutela, eta lan-esparru hori bide ezin hobea dela gizartea eraldatzeko beharrezkoak diren sinergiak eta aliantzak josteko, gizarte osoa tartean dela. Beste ondorio bat ere atera zen, gainera: lurralde bakoitzaren premia konkretuetan eta lehenetsi beharreko politiketan ardaztutako ikuskera bat behar-beharrezkoa dela, alegia. Epe luzera pentsatu beharra daukagu, eraldaketa-estrategiak sortzeko, eta mota askotako sare eta aliantzak josi, gizarteko sektore guztiak lotzeko. Izan ere, aldaketarako motoreak horixe esan nahi du: diziplinar-teko eta belaunaldien arteko aliantzak jostea.

Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak Euskal Agendan: Kultura

Garapen Iraunkorrerako Helburuen esparrua globala da, inspirazio-iturri bat, baina malgutasunez aplikatu beharrekoa, lekuan lekuko kondizio eta lehentasunetara egokituko badira. Gainera, jasangarritasunera iristeko, lurralde bakoitzaren identitateak sekulako ahala du. Testuinguru horretan, kultura eta hizkuntzak pentsamendu- eta nortasun-eragile dira bai mundu-mailan eta bai tokian-tokian. Espresabideen, mundu-ikuskeren eta kulturen aniztasuna adierazten dute hizkunderik. Alde horretatik, Euskal Agendan beste helburu bat sartzea proposatzen da: 18. Helburua = Kultura.

Balioetan hezteak

Eraldaketa horrek bi ardatz nagusi ditu: batetik, balioetan eta pentsamendu kritikoan oinarritutako hezkuntza; eta, bestetik, soluzio sortzaile eta kolaboratzaileen bilaketa. Baliabide eta egitura mental berriak behar ditugu, ezaguera partekatuen eta sormen kolaboratzailearen bitartez (pertsonek iraultza) aurrera egiteko. Hezkuntza-sistemari eta, oro har, gure komunitateari buruzko hausnarketa sakona egitea dakar balioetan hezteak, gogoeta pertsonal nahiz kolektibo sakon bat egin beharra, eskola gizartearen ispilua denez gero (hezkuntza eskoletatik atera beharra dago). Eta horretan, oinarri-oinarrizkoa da irakasleak behar bezala prestatzea, irakaskuntza-metodologiei buruzko didaktikan eta ikerketan sakontzea, alor guztietako hezkuntza-esperientzia gehien-gehienak bide horixe egiten ari baitira. Hezkuntzak gizartean duen eragina aztertzeke adierazleek, ezaguerak ez ezik, jarrerak, gaitasunak eta balioak ere aintzat hartu behar dituzte: horra hor gure helburu nagusia.

Eredu ekonomikoa aldatu beharra: Ekonomia Jasangarri baterantz

Eredu ekonomikoa aldatu eta Ekonomia Jasangarri batera iristeko pausoak ematea da eraldaketarako beste elementu nagusia; alde horretatik, beharrezkoa da trantsizio energetiko bati ekin eta energia berriztagarriak, kontsumoaren murrizketa eta elikadura-burujabetza oinarri izango dituen egoera berri batera iristea. Gure eredu ekonomikoak kontraesan handiak ditu; arma-industriari dagokiona, esate baterako: bakearen alde egiten da, baina, aldi berean, armak saltzen dira.

Agerian gelditu da, halaber, Garapen Iraunkorrerako Helburuen jokaleku nagusia hiriak direla. Ikerketa-lan ugari egin dira ikuspuntu askotatik, eta hiri jasangarriei buruzko diziplinarteko lantalde bat sortzea proposatu da.

Aldaketa-motoreen arteko sinergiak

Lantaldeen saioetan, agerian gelditu da aurkeztutako esperientziek zenbait helburu izan dituztela, eta horrek argi erakusten du Garapen Iraunkorrerako Helburuak elkarri estu-estu lotuta daudela. Ondorio nagusien artean, garbi ikusten da beharrezkoa dela aldaketa-motore nagusien artean (hezkuntza, kultura, ekonomia eta teknologia) sinergiak sortzea, horrek jasangarritasunerantz eraman gaitzan. Beharrezkoak dira, halaber, ezaguera-esparru desberdinen arteko sinergiak, hezkuntza-sistema formalen eta ez-formalen artekoak, hedabideen artekoak eta belaunaldien artekoak. Errealitateari buruzko ikuskera holistiko

batek barnean hartu behar ditu natura-zientziak eta gizarte-zientziak; eta, alde horretatik, geoaniztasuna Garapen Iraunkorrerako Helburuei gehitzea proposatzen da.

Administrazio publikoen koherentzia eta inplikazioa

Esaten, egiten eta sentitzen dugunaren artean koherentzia gorde behar dugu; ezaguerak ez dute balio, gizarte osoa inplikatzeko ez bada. Jardunaldiotan parte hartu dugun talde eta pertsonok Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzen dugu, eta bide horretan, gu guztion arteko aliantzak indartzen ari gara. Topaketa motibatzaile eta esperantzagarri hauen ondoren ere, gure ezaguerak eta arrakasta txikiak partekatzen jarraitu nahi dugu. Ez diezaiegun porrotei erreparatu.

Bestalde, politika publikoak Garapen Iraunkorrerako Helburuen esparru horren barruan garatzeari ere ezinbesteko deritzogu, eta beraz, helburuok administrazio publikoaren agiri estrategikoetan eta martxan jartzekoak diren ekimenetan txertatu beharko lirateke. Euskadiko administrazio guztiei eskatzen diegu beharrezkoak diren baliabideak eskain diezazkietela Garapen Iraunkorrerako Helburuak inplementatzeari, eta babes ditzatela martxan jartzekoak diren ekimen guztiak.


Dibulgazioa eta ikusgaitasuna

Hezkuntza-erakunde, enpresa, hedabide eta, oro har, herritar guztiei eskatzen diegu, orobat, bat egin eta parte har dezatela jasangarritasuna helburu duen aldaketa-bide horretan.

Eguneroko bizitzan errotu ezean, ezaguerak ez dute ezertarako balio. Arazo handienei aurre egiteko, beharrezko da soluzio apalak ongi koordinatzea. Horretarako, pertsona guztiak gara beharrezkoak.

Bizkaia Aretoan (Bilbo), 2017ko irailean.

Izpta. Miren Onaindia (Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Katedraren koordinatzailea)



Bertan parte hartu duten pertsona guztiek egin dute posible jardunaldion antolaketa. Horretan, eskertzekoa izan da, halaber, zenbait erakunderen laguntza: Bizkaiko Foru Aldundiarena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarena eta Hezkuntza Sailarena, eta Euskadiko UNESCO Etxearena.